

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultur elkarreentzako 2019rako dirulaguntzen deialdia eta emakida

BDNS (identifikatzailea): 450815

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, dirulaguntza deialdiaren laburpena argitaratzen da; dena den, horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Legutioko Udalaren web orrian (<http://www.legutio.eus>) kontsultatu ahal izango da.

Xedea

Deialdi honen xedea da elkarrekin udal mugartearen barruan sustatutako gizarte eta kultura jarduerak edo udalerrientzat interesa dutela iritzi ahal zaien jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontu mugen barruan.

Pertsona onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarrekin izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kultura elkarrekin proposatutako kultura programen barruko jardueren antolaketatik sortutako gastuak, haiek kokatuta dauden udalerririk edo populazioari bideratuta badaude eta 2019. urtean garatu beharreko egutegi zehatza badaukate.

Balorazio irizpideak

- a) Zer interes publiko edo sozial duen jardueraren proiektuak edo programak; baita zer interes duten ezarritako helburuek ere.
- b) Udalerririk herrietan eragina duten eta bertako kultura eta bertako kultura jarduerak sustatzen dituzten proiektu edo jarduerak izatea.
- c) Erakunde eskatzailearen egonkortasuna eta kaudimena, eta hark aurkeztutako programaren jarraitutasuna.
- d) Erakunde sustatzailekoak ez diren pertsonen kideek parte hartuko luketen baldintza berean parte hartzea proiektuaren edo programaren xede diren jardueretan.
- e) Programa hau dirulaguntzaren bitartez aurrera eramatea bermatzeko aurkeztu ditzakeen baliabideak (azpiegitura, materialak eta baliabide pertsonalak) izatea.
- f) Programa edo jarduerak euskararen zabalkundeari egiten dion ekarpena.
- g) Kontuan hartuko da eskatutakoak erakunde eskatzailearen diru baliabideekin duen proportzionaltasuna.
- h) Diruz lagundu beharreko zenbatekoa ehuneko 1 areagotuko da diruz lagundutako jardueren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen badute.

i) Diruz lagundu beharreko zenbatekoa ehuneko 1 areagotuko da diruz lagundutako jarduerak euskara erabiltzea sustatzen badute.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diruz lagunduko den gehienezko kopurua aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 75ekoa izango da.

Eskaerak eta agiriak

Dirulaguntza hauek lortu nahi dituzten elkarteek eskabideak eredu formalizatuan aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak Legutioko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, Carmen kaleko 10. zenbakian, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide baliatuta.

Legutio, 2019ko apirilaren 11

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA